## Otsaurte / Txurrukopunta/ Garagartza zirkularra



**P. Aparkalekua.** Zegamako Otsaurte gaineko aparkalekuan utziko dugu autoa.



**1. Hasiera puntua.** Beundako alderako bidean dagoen kanadiar pasabidea igaro, eta ezkerraldean dauden seinaleei jarraituz basoan murgilduz. Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren borobil horiak dira erreferentzia.



**2. Arkaungaina.** Basotik aterata, Arkaungaina izeneko parajera iristen da. Pinu bakarti bat ikusiko dugu aurrez aurre. Arrastoei segiz goraka jarraitu behar da.



**3. Abilletako zista.** Larre eta arbol bakaneko eremu honetan Abilletako zista monumentu megalitikoarekin topo egingo dugu.



**4. PR arrastoa pagoan.** Pago batean margotutako puntu hori eta PR arrastoei segi behar zaie bidezidorrean, Ultzamara bidean.



**5. Ultzamako lepoa.** Ultzamako lepoko ganadu harrapalekua eskubitara utziz, Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren arrasto borobilarekin ahaztu, eta arrasto berde-zuriei jarraituko diegu ehun metroan. Pista ezkerrean dela, belazean gora abiatuko gara Txurrukopuntarantz.



**6. Harkaitzak zelaian.** Txurrukopuntara bidean, zelaian dauden harkaitzak dira igoeraren erreferentzia. Ultzama ikusten da behean, eta urrutirago Aizkorriko gailurreriaren ikuspegia.



7. Txurrukopunta (998 m.). Iritsi gara ibilbideko punturik gorenera. Lasai hartuta, ordubetean iristen da. Gain garbi-garbia da mila metroko garaieran, eta 360 graduko panomarika eskaintzen du: Aratz mendia eta Aizkorriko gailurreria alde batean; Urdalurko urtegia, Sakana eta Beriain bestean; Etzegarateko pagadiak eta Aralar ere bai; eta Otsaurte aldera begiratuta, Goierriko mendiak



**8. Jaitsiera Garagartzarantz.** Naparraitz eta Garagartza alderako jaitsieran, sakan eta harrikari gune bat igaro beharra dago, eta behealdean ikusiko ditugu bi haitz nabarmen horiek.



**9. Naparraitz.** Naparraitz haitzak 20-25 metro inguruko harkaitz zati bat galdu zuen 2023ko irailean, irudian ikus daitekeen moduan. Kirol eskalada gunea da.



**10. Garagartza eta Zabalaitz.** Naparraitzetik goraxeago, Garagartza txabola dago, izen bereko parajean. Haren gainaldean, Zabalaitz edo Bikunaitz haitza dago. Kirol eskalada gunea da hori ere.



11. Garagartzako trikuharria. Otsaurtera itzultzeko arrasto zuri-berdeak (SL-Gi 3004) dira erreferentzia. Garagartzatik ordu erdi bat dago helmugara. Bidetik hamar metro desbideratu gara Garagartzako trikuharria ikusteko. Atzera arrasto zuri-berdeak aurkitu, segi beherantz, erreka zulorantz.



**12. Errekastoak pagadian.** Otsaurteko bideko zatirik handiena pagadi batean egingo dugu. Tartean hiru errekasto gurutzatu beharko ditugu, horretarako egokitutako pasabideen bidez.



**13. Hagin bikaina.** Pagadia eta elordia zeharkatuta, pinua ageri da berriz, baso misto baten barrenean. Ezkerretara hagin dotore bat ikusiko du.



**14. Ur depositua.** Bidezidorra baso pista bihurtzen da eremu horretan, Depositu bat dago eskubitara. Bidean harria botata dago, pistari eusteko. Aurreraxeago bidea bitan egiten da, eta beherantz egin beharra dago, uso postu bat ezkerretara utziz.



**15. Otsaurtera iristen.** Zati labur batean batere arrastorik ikusi gabe egon ondoren, arrasto zuri-hori-berdeak daude, Otsaurte bistan dela. Egur pilo batean eskubitara egin, kanadiar pasabidea gurutzatu, eta Andikoetxea baserria ezkerretara dugula, metrora gutxira dago Otsaurte.



**1. Amaiera puntua.** Berriz ere Otsaurteko aparkalekuan gara bueltan, ibilbideari bukaera emanez.



## **OTSAURTEKO GAINA**

Seiehun metrotik gora garaieran, Aizkorri-Aratz parke naturalaren sarbide nagusietako bat da. Otsaurteko benta dago errepide kontran, eta mendi aldera begiratuta Beundako atsedenlekura eta Aldaola aparkalekura –San Adriango pasabidearen barrenean-aldera joateko bidea dago. Andra Mari baseliza eta Andikoetxea baserria ere bertan daude. Zegamari badagokio ere, Etzegarate aldetik bidea erosoagoa da hara iristeko.



## TXURRUKOPUNTA

Otsaurtetik abiatuta ordubetea iristen da ikuspegi paregabea duen mendi honetara. Mila metroko altueran, inguruak Nafarroarekin duen gertutasuna nabaria da. Aratzera edo Aizkorriko gailurreriara igo gabe, mendiaz eta bistez gozatzeko aukera ematen duen gain zabala da Txurrukopunta. Goierriko haur askok igo izan duten lehen mendietako bat da.



## **GARAGARTZAKO HAITZAK**

Garagartzako eremuan bi haitz nabarmen daude. Naparraitz alde batean, eta Zabalaitz edo Bikunaitz goraxeago. Lehen horretatik 20-25 metroko harkaitz zati bat erori zen 2023ean, eta harrezkero bestelako itxura bat du. Zabalaitz edo Bikunaitz, Garagartza txabolaren gaineko haitza da, eta bertatik bi minutuan igo daiteke hara. Haren oinpean, Garagartzako trikuharria dago. Biak ala biak kirol eskalada eremuak dira.